



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Enkarterriko Udalen Mankomunitatea

**Enkarterriko Udal Mankomunitatean hutsik dagoen Gizarte Langile lanpostu bat lehiaketa-oposizio libre bidez betetzeko hautaketa-proben deialdia eta oinarri arautzaileak.**

2024ko apirilaren 3an, Enkarterriko Udal Mankomunitateko buruak 38/2024 zenbaki-ko Presidentetza Dekretua eman zuen. Horren bidez, honako hau xedatzen da:

*Lehenengoa:* Enkarterriko Udal Mankomunitateko Lan Eskaintza Publikoaren arabera (2021eko martxoaren 16an egindako ohiko batzarrean onetsia), gizarte-langile lanpostua betetzeko hautaketa-proben deialdia ezarri zen (derrigorrezko 3. Hizkuntza Eskakizuna, A2 azpitaldea), lehiaketa-oposizio bidezko sarbide libreko sistemaren bitartez.

*Bigarrena:* Onestea Enkarterriko Udal Mankomunitateko honako lanpostu huts hau lehiaketa-oposizio bidez eta txanda librean jabetzan betetzeko hautaketa-proben deialdia eta oinarri arautzaileak (dekretu honen eranskin gisa jasota daude):

- Gizarte-langilea (Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa (erdi mailako teknikaria), A2 taldea, 3. Hizkuntza Eskakizuna. Derrigortasun-data: 2022ko abenduaren 31.

*Hirugarrena:* Deialdia eta oinarriak argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragar-ki-taulan eta Enkarterriko Udal Mankomunitateko web-orrian.

*Laugarrena:* Deialdiaren zati bat Estatuko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da; iragarki horren data erabiliko da eskaerak aurkezteko epea zenbatzeko.

*Bosgarrena:* Dekretu horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, hilabeteko epean, dekretua egin duen organoan bertan. Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan zuzenean aurkaratu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoa betez.

Zallan, 2024ko apirilaren 3an.—Mankomunitateburua, Martín Pérez Garmendia



ERANSKINA

ENKARTERRIKO UDAL MANKOMUNITATEAN HUTSIK DAGOEN  
GIZARTE-LANGILE LANPOSTU BAT LEHIAKETA-OPOSIZIO LIBRE BIDEZ BETETZEKO  
HAUTAKETA-PROBEN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Enkarterriko Udal Mankomunitatean funtzionario lanpostu bat lehiaketa-oposizio sistema bidez jabetza erregimenean betetzeko hautaketa-prozesua arautzea. Lanpostu hori Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2021eko martxoaren 16an egindako ohiko batzarrean onetsitako lan eskaintza publikoaren xede izan zen.

| Lanpostu kopurua | Lotutako lanpostua | Lanpostua noiztik dago hutsik | Ezaugarriak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|------------------|--------------------|-------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1                | Gizarte-langilea   | 2021/03/22                    | <ul style="list-style-type: none"><li>— Funtzionario erregimena.</li><li>— Eskala: Administrazio Berezia.</li><li>— Azpieskala: Teknikoa (erdi mailako teknikaria).</li><li>— Taldea: A2.</li><li>— Hornitzeko era: Lehiaketa-oposizioa.</li><li>— Txanda: Librea.</li><li>— LO: 17.</li><li>— BO: 20.474,72 euro.</li><li>— Titulazio akademikoa: Gizarte Langintzako diplomatura eta/edo Gizarte Langintzako Gradua edo baliokidetzat deklaraturako titulazioa.</li><li>— %100eko arduraldia</li><li>— Hizkuntza-eskakizuna: 3. Derrigortasun-data: 2022ko abenduaren 31.</li></ul> |

Euskara jakitea beharrezkoa da; izan ere, derrigortasun-data iraungita dago.

1.1. Lanpostuaren zereginak

Aukeraturako hautagaiak Enkarterriko Udal Mankomunitatea osatzen duten udalerrien udaletxe bakoitzaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoitzan emango du zerbitzua.

Administrazio Bereziko Eskalari datxekion zeregin orokorreaz gain, bere zeregina izango da lanpostuaren maila eta kategoria barruan eskatutako zereginak egitea.

1.2. Lanaldia

Lanaldia eta egutegi ofiziala Mankomunitateak urtero ezarritakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta berariazko beharren arabera.

Mankomunitateak lanaldi zatitua eta arduraldi berezia eskatu ahalko ditu; hala ere, zerbitzuaren beharren ondorioz, Administrazio Publikoan kategoria bereko funtzionarioen lanaldi arruntaren barruan dagoen beste edozein ordutegi betetzeko agindu ahalko du. Hala ere, lanaldi zatituak ez du eskubiderik emango Mankomunitateak kategoria bereko funtzionarioentzat orokorrean ezarritakoaz bestelako diru-konpentsaziorik edo ordainketa osagarririk jasotzeko.

1.3. Lanpostuarekin lotutako lan-poltsa bat sortzea

Epaimahaiak ezin izango du deitutako plaza baino hautagai kopuru handiagoa hautatutzat jo. Muga horiek gainditzen dituzten proposamen guztiak erabat deusezak izango dira.

Hautaketa-prozesu hau gainditu duten eta plazarik ez duten pertsonen zerrendak balioudunak izango dira lanpostuarekin zerikusia duen lan-poltsa bat ezartzeko. Lan-poltsa hori indarrean egongo da dagokion deialdian haututako pertsonak lanpostua jabetzan hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Horretarako, hautagaien zerrenda bat eratuko da, oposizio- eta lehiaketa- faseetan lortutako puntuazio osoaren ordenan, eta zerrenda hori bajen, huts-egitean, aldi bete-



rako behar zehatzen, eginkizun berezien eta onetsitako beste behar-egoera batzuen kontingentziak estaltzeko erabiliko da, bai eta beste administrazio batzuei lagatzeko ere.

#### 1.4. *Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna*

Deitutako plazak derrigorrean du ezarritako 3. hizkuntza-eskakizuna, 2022-12-31ko derrigortasun-datarekin.

Euskara tituluen eta egiaztagirien baliokidetasunen araubidea eta euskararen eza-guera egiaztatzetik salbuesteko kasuak arautzen dituen araudia beteko da: 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.

#### 1.5. *Tratu-berdintasuneko printzipioa*

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua xedatzen duenari eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bitartez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. eta 9. artikuluek xedatzen dutenari jarraikiz, deialdiek tratu-berdintasunaren printzipioa beteko dute, eta ezingo du bazterkeriarik egon honako arrazoi hauen-gatik: jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo kasu justifikatu eta zentzuzkoetan, proporzional eta kongruenteetan, tratu ezberdina oinarritzen duen arauben batek babesten ez duen beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik.

### 2. **Hautagaiek bete beharreko baldintza edo betekizunak**

2.1. Dagozkion hautaketa-prozeduretan parte hartu ahal izateko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

a) Nazionalitatea:

- Naziotasun espainiarra izatea.
- Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarra izatea; kasu horretan, espainiarrekiko aukera berdintasunean parte hartu ahalko dute enplegu publikoetan, zuzenean edo zeharka botere publikoaren erabilera edo estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorren babesean parte hartzea dakarten lanpostuetan izan ezik, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 72 artikuluan xedatutakoa betez.
- Pertsona espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kide bateko naziotasuna duten pertsonen senidea, euren naziotasuna edozein dela ere, baldin eta ez badaude zuzenbidez bananduta. Halaber, baldintza bertsuetan parte hartu ahalko dute bien ondorengoek, hogeita bat urtetik beherakoek edo adin hori baino zaharragoek, baldin eta mendekoak badira.
- Europar Batasunean eginiko eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzeko esparruaren baitan dauden pertsonak, betiere langileen zirkulazio librea aplikatzekoa denean.

b) Adina:

- Hamasei urte beteta izatea eta, hala dagokionean, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 56.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Titulazioa:

- Gizarte Langintzako diplomatura eta/edo Gizarte Langintzako gradua edo baliokidea izatea.
- Eskerak aurkezteko epea amaitzean, eskatutako titulazio akademikoa izatea, edo bestela, hori lortzeko eskubideak ordaindu izana.
- Tituluak atzerrian lortu dituzten hautagaiek egiaztatu egin beharko dute titulua baliozkotua dutela edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen agiria dutela.



## d) Hizkuntza eskakizuna:

- 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea edo hautaketa-prozesu honetan zehar xede horretarako deitutako egiaztapen-probak gainditzea.

Eskatutako hizkuntza-eskakizuna jabetzan izatearen egiaztagiria eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da. Prozesu honetan egindako profil-egiaztapenaren probara aurkeztekotan (oposizio-faseko hiru-garren ariketa), betebeharrak hori betetzeko data honako hau izango da: hautaketa-prozesu honetan profil-egiaztapen proba egiten den eguna.

## e) Beste titulazioa:

- IT-Txartela edo informazioaren teknologia berrien erabilerari buruzko beste edozein ziurtagiri baliokide izatea, honako hauetan oinarritzko ezagutzak egiaztatzen dituenak: Oinarritzko Microsoft Word (2010 edo ondorengoa); oinarritzko Microsoft Excel (2010 edo ondorengoa); oinarritzko Microsoft Access (2010 edo ondorengoa); oinarritzko Microsoft Outlook (2010 edo ondorengoa); eta Internet.

## f) Gaikuntza:

- Herri-administrazioen edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatu-organoen edozein zerbitzutatik kanporatua izan ez izana diziplina-espediente baten bitartez, eta ebazpen judizialaren bidez erabat edo modu berezian gaitasungabetua ez egotea enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen taldean edo eskalan sartzeko, edo langileek betetzen zituzten antzeko funtzioak betetzeko.
- Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, gaitasungabetua edo antzeko egoera batean ez egotea, eta dagokion estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikoa izatea eragozten duen diziplina-zehapenik edo antzekorik jaso ez izana.
- Egiten ari ziren zereginen antzekoak egiteko baliogabetu ez izana, arau hauste oso larri bat egiteagatik langile lan-kontratudunen diziplinazko kaleratzen baten ondorioz.

## g) Bateriaezintasuna edo ezintasuna:

- Administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunaren arloan indarrean dagoen arautegiarekin bat ezintasun edo bateraezintasunaren legezko arrazoiren baten murgildua ez egotea. Dena den, jada kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenen kasuan, legezko arauak aipatzen duten aukera-eskubidea erabil dezake.

## h) Gaitasuna:

- Zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea eta ez izatea dagozkion eginkizunak egitea eragozten duen akats fisiko edo psikikorik.

## i) Eskaerak:

- Aurretiazko eskaera egitea Mankomunitate honen eredu normalizatuaren arabera.

## j) Egiaztagiriak:

- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa izatea, adingabearen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan xedatutakoa betez.

## k) Gidabaimena:

- B kategoriako edo motako gidabaimena izatea.

2.2. Betekizunak betetzeko datak: Deialdian parte hartu nahi dutenek eskakizun guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

Era berean, baldintza guztiak bete behar dituzte hautaketa-prozesuan zehar izendapena egin arte, hizkuntza-eskakizunari eta akreditazio-uneari buruzko d) apartatua eta



gaitasun funtzionalari buruz h) apartatuan ezarritakoa izan ezik; kasu horretan, Mankomunitateren zerbitzu medikoek egiaztatu behar dute lanpostuan hasi baino lehen.

2.3. Eskatutako betekizunen falta: Aurrekoa gorabehera, hautatze-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak hautagairen batek deialdiko eskakizun guztiak betetzen ez dituela jakinez gero, interesdunei entzunaldia eginda, baztertu egingo du, eta egun berean hautatze-prozesua deitu duen agintaritzari horren berri emango dio.

2.4. Datuen babesa: Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berariaz onartu beharko dute euren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta xedearekin tratatzea.

### **3. Eskaeren aurkezpena**

#### **3.1. Eskaerak aurkezteko modua**

##### **3.1.1. Eskaerak**

Hautaketa-probetan parte hartu nahi dutenek deialdi honen I. eranskineko (Enkarterriko Udal Mankomunitateko web-orrian eskuragarri: [www.enkarterri.eus](http://www.enkarterri.eus)) eredu ofizialera doitutako eskaerak aurkeztu beharko dituzte. Horrez gain, eredu normalizatua eman-go da (I. eranskina) Enkarterriko Mankomunitateko Erregistro Orokorrean (Inmaculada auzoa 15, 48850, Zalla, Bizkaia).

Onartuak izateko eta dagozkion hautaketa-probetan parte hartzeko, nahikoa izango da hautagaiek honako hauek egitea:

- a) Eskaeraren atal guztiak betetzea eta deialdian eskatutako betekizunak egiaztatzeko dokumentazio guztia aurkeztea. Horrez gain, eskaeran adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuta, hizkuntza-eskakizunari buruzko eskakizuna izan ezik; izan ere, eskakizun hori 6. oinarrian xedatutakoa betez egiaztatu ahalko da.
- b) Eskaera une eta modu egokian aurkezten ez bada, hautagaia hautaketa-prozesutik kanporatu egingo da.
- c) Alegatzen diren merezimenduak aurkeztea. Hautagaiek I. eranskinean jasotako ereduan jasoko dituzte alegatutako merezimenduak. Ez dira alegatutakoak eta behar bezala justifikatutakoak ez diren merezimenduak baloratuko. Hautagaiek eskaeretan jasota utzi dituzten datuei lotuta geratzen dira.

##### **3.1.2. Proben hizkuntza ofiziala**

Eskaeretan adierazi beharko da zein hizkuntzatan egin nahi diren hautatzeko probak (euskaraz edo gaztelaniaz). Horren inguruan ezer adierazten ez bada, ulertuko da proba guztiak gaztelaniaz egingo direla.

##### **3.1.3. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko informazioa**

Halaber, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko eskaerarekin batera:

- NANaren fotokopia edo nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiria, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren kasuan.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean hori lortzeko baldintzetan egotearen egiaztapenaren fotokopia.
- Lanpostuan eskatutako 3. hizkuntza-eskakizunaren egiaztapenaren fotokopia.
- Oinarrizko mailako IT-Txartela egiaztapenaren fotokopia: Word, Excel, Access, Outlook, Internet.
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa, adingabearen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan xedatutakoa betez.
- Gidabaimenaren kopia.
- Esperientzia profesionalaren egiaztapenak eta lan-bizitzaren txostena, eta prestakuntzako egiaztapenak, horiek egiaztatzeko beharrezko agiriekin batera. Ez dira



baloratuko eskaerak aurkezteko epean alegatu eta egiaztatu ez diren merezimen-  
duak.

### 3.2. *Eskaerak aurkezteko tokia*

Eskaerak, ahal dela, telematikoki aurkeztuko dira honako web-orri honetan eskura-  
garri dagoen egoitza elektronikoan: [www.enkarterri.eus](http://www.enkarterri.eus).

Bestela, aurrez aurre aurkeztu ahaliko dira Mankomunitatearen Erregistro Oroko-  
rrean, 9:00etatik 14:00etara, Mankomunitateburutzari zuzenduta.

Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren  
1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan aurkeztu ahal izango  
dira:

- a) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan.
- b) Edozein administrazio-organoren erregistroetan, baldin eta Estatuko Administra-  
zio Orokorraren, Autonomia Erkidegoen edozein Administrazioen edo Toki Ad-  
ministrazio osatzen dute erakunderen baten kide badira (azken kasu horretan  
dagokion hitzarmena sinatu bada).
- c) Posta-bulegoetan, araudiak ezarritako moduari jarraikiz:  
Posta-bulegoetan aurkeztutako eskaeretak, Administrazio Publikoen Adminis-  
trazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarri-  
takoa betez, gutun irekian aurkeztuko dira, posta-bulegoko funtzionarioak data eta  
zigilua jartzeko, eskabideak aurkezteko epearen barruan ziurtatu aurretik.  
Kasu horretan baino ez da ulertuko eskabideak Mankomunitatearen Erregistro  
Orokorrean posta-bulegoan entregatu ziren datan sartu direla. Eskaera zигilatuta  
egon beharko da.
- d) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo kontsul-bulegoetan.
- e) Indarreko xedapenek ezarritako beste edozeinetan.

Entregatzeko azken eguna Enkarterriko Udal Mankomunitatearentzat baliogabea  
bada, entregatzeko epea hurrengo egun baliodunera eramango da.

Eskarietan hautagaiak diren langileek emandako informazio guztia tratamendu-jar-  
duera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesurako besterik ez da erabiliko.

Eskaerak aurkezteko epea:

Eskaerak aurkezteko epea hogei (20) egun baliodunekoa izango da, laburpena Biz-  
kaiko Aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaera une eta modu egokian aurkezten ez bada edo emandako datuak faltsuak  
badira, hautagaia hautaketa-prozesutik kanporatu egingo da.

## 4. **Hautagaiak onartzea**

### 4.1. *Onartutako eta baztertutako hautagaien hasierako onarpena*

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ostean, eta hautagaiek deialdiko baldintza guztiak  
betetzen dituztela egiaztatu ostean, mankomunitateburuak onartu eta Bizkaiko Aldizkari  
Ofizialean, Mankomunitateko iragarki-taulan eta bere web-orrian argitaratuko du onar-  
tutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda jasotzen duen ebazpena.  
Zerrenda horietan ez onartzeko arrazoia jasoko da, hala badagokio.

Ebazpen horretan, gainera, euskara-probatik salbuetsitako hautagaien behin-behine-  
ko zerrenda jasoko da, aurretiaz egiaztatu dutelako.

Hala ere, puntu honetan adierazitako ebazpenean hamar (10) eguneko epea ezarriko  
da akatsak zuzentzeko.

Egitezko okerrak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo dagokion  
aldeak eskatuta.



#### 4.2. *Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko onarpena*

Erreklamaziorik egiten ez bada, behin-behineko zerrendak behin betikotzat hartuko dira besterik gabe. Erreklamazioak egotekotan, ebazpen berri batean onartu edo baztertuko dira. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrendak jendaurrean jarriko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Mankomunitateko iragarki-taulan eta web-orrian.

Onartutako eta baztertutakoen zerrendak onesten dituen ebazpenaren aurka auke-rako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da mankomunitateburuaren aurrean. Horretarako, hilabeteko (1) epea egongo da, behin betiko zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean aurkezten diren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Probak egiten diren egunean errekurtsoa oraindik ebatzi ez bada, egoera horretan dauden hautagaiak azterketa kautelaz egin ahal izango dute, baina horrek ez du baliorik izango aipatu errekurtsoa gaitzesten bada.

#### 4.3. *Onartuen zerrendan egotearen balioa*

Onartuen zerrendan agertzeak ez du zertan esan interesdunei hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Azkenik pertsona hautatua izango balitz, izendapenaren aurretik aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez duela betetzen betekizunetako bat, prozedura horretan parte hartzetik eratorri ahal diren eskubide guztiak galduko dira.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagairen batek deialdian ezarritako betebeharren bat duela betetzen, betiere interesdunari entzunaldia eman ondoren, hautagai hori bazter dezala proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak parte hartzeko eskaeran azaldutako oker edo faltsukeriak adierazita.

#### 4.4. *Jakinarazpenak*

Balizko jakinarazpenetarako, helbide gisa ulertuko da eskaeran adierazitakoa, salbu eta ondoren beste bat adierazten bazaio berariaz eta modu frogagarrian organo deitzai-leari.

### 5. **Epaimahai kalifikatzailearen osaera, izendapena eta jarduketa**

#### 5.1. *Osaera*

Epaimahaia mahaiburu batek, hirutik gorako mahaikide kopuru bakoiti batek eta idazkariak osatuko dute, bai eta dagozkien ordezkoez ere.

Osaera espezialitatearen printzipioaren arabera zehaztuko da; horrenbestez, kide guztiek deialdiko lanpostuak bete ahal izateko eskatzen den maila akademikoko edo goragoko titulua izan beharko dute, eta kideen erdiek, gutxienez, beteko den lanpostuari dagokion lanbide-arloko edo sektore bereko ezagutzak izan beharko dituzte, hala ez izatea justifikaturik egon ezean.

Epaimahaia modu orekatuan osatu behar dute gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonak. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertzen da baldin eta lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikuluan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoa betez.

Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik; horrek hitza bakarrik izango du. Epaimahaiaren erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoaz hartuko dira, eta, berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren botoak ebatziko du berdinketa.

Hala ere, Epaimahaiak eskatu ahalko du azterketaren xede diren arloetan adituak diren pertsonak bileretan laguntzea, eta pertsona horiek ahotsa izango dute, baina ez botoa haien espezialitateko arloetan.



Ezingo dira epaimahaikideak izan deialdia argitaratu eta aurreko bost (5) urteetan hautaketa-probetako hautagaientzako prestakuntza-lanak egin dituzten pertsonak.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren epaimahai kalifikatzailean dagokion ordezkartza alde batera utzi gabe, institutu horretako ordezkari bat ere egongo da deialdian eskatutako hizkuntza-eskakizunen egiaztapen probetan.

#### 5.2. *Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak*

Epaimahaikideek eskubidea izango dute kalte-ordainak jasotzeko dagokion zerbitzuagatik, laguntzakoak barne, horren inguruan indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

Era berean, dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte Epaimahaiari aholkularitza ematen dieten edo harekin zaintza edo laguntza material zereginetan jarduten duten pertsonak.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Mankomunitatearen iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da, onarpen eta bazterketen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera.

#### 5.3. *Parte ez hartzea eta errefusatzea*

Epaimahaikideak esku hartzetik abstenitu beharko dira, makomunitateburuari jakinarazi ostean, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan xedatutakoa betez, interesdunek edozein unetan errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

#### 5.4. *Eraketa eta jarduketa*

Epaimahaiak bere jarduketa doituko du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. eta 18. artikuluen arteko artikuluetan ezarritako arauetara.

Epaimahaia ezingo da eratu kideen erdia baino gehiago ez bada bertaratu; hala, beti bertaratu beharko dira mahaiburua eta idazkaria.

Epaimahaiak eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten aholkulari edo espezialistek objektibotasun, inpartzialtasun, autonomia funtzional eta profesionaltasun printzipioen arabera jardungo dute. Prozeduraren gardentasunaren eta objektibotasunaren, edukiaren, proben konfidentzialtasunaren eta deialdiaren oinarriak zorrotzasunez bete-tearen arduradun izango dira.

Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkari kargua duenak izan ezik. Horrek hitza edukiko du, baina botoa ez. Epaimahaiaren erabakiak bertaraturakoen botoen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa badago mahaiburuak ebartziko du.

Jakinarazpenak egiteko eta gainerako gorabeheretarako, Epaimahaiak honako helbide honetan izango du egoitza: Inmaculada auzoa 15, 48850, Zalla, Bizkaia.

Epaimahaiak gaitasuna izango du zalantzak argitzeko eta deialdia behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartzeko, bai eta oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen beste guztirako.

Epaimahaiak bermatu egingo du hautagaiek hautaketa prozesuaren baitan euren espedientearen berri izateko eskubidea.

Epaimahaiak hautaketa-prozesuaren edozein unetan eskatu ahalko du hautagaien identitatea egiaztatzeko.

Epaimahaiak eta hautaketa-prozesuan esku hartzen duten aholkulari edo espezialistek beharrezko neurriak hartuko dituzte konfidentzialtasuna bermatzeko. Proben zuzenketa aztertuen anonimotasuna mantenduz egin beharko da.



Epaimahaiaren dituen ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da Enkarterriko Udal Mankomunitateko buruaren aurrean. Horretarako, hilabeteko (1) epea egongo da, iragarki taulan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, hautaketa-prozesutik eratorritako administrazio-egintzak Mankomunitatearen iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko dira; jakinarazpena ordezkatzuko dute eta horren ondore berak izango dituzte.

Nolanahi ere, euskara-ezagutzari dagokion probarako izendatutako epaimahaikideek ondorio horietarako baino ez dute balioko, berariaz besterik erabaki ezean.

## **6. Hautaketa prozedura.**

### **6.1. Hautagaiak hautatzeko prozedura**

Hautagaiak hautatzeko prozedura txanda libreko lehiaketa-oposizioa izango da. Horretarako, oposizio-fase bat egongo da, non hautagaiak oinarri hauetan ezarritako ariketak egin beharko dituzten, eta, bestetik, lehiaketa-fase bat, non merezimenduak baloratuko diren, oposizio-fasearen aurretik.

— Oposizio-fasea: Gehieneko puntuazioa: 100 puntu

Txanda libreko oposizio-fasean zenbait proba edo ariketa egingo dira. Ariketa horiek derrigorrezkoak eta kanporatzaileak izango dira, II. eranskinean dagoen edukiari/gai-zerrendari buruzkoak.

Oposizio-fasea honako proba hauek osatuko dute:

1. Lehenengo ariketa: Hautagaiak idatziz test motako galderen galdetegi bat erantzun beharko dute. Galdetegi horretan zenbait erantzun-aukera egongo dira, eta oinarri hauetako II. eranskinean jasotako gai-zerrendari buruzkoak izango dira.  
Ariketa honetan, gehienez ere, 50 puntu lor daitezke. Proba gainditzeko gutxienez 25 puntu lortu behar dira.
2. Bigarren ariketa: Hautagaiak II. eranskineko gai-zerrendako bigarren atalarekin (II. atala) eta lanpostuari datxekion zereginekin lotutako galdera irekiak idatziz erantzun edo kasu praktiko bat edo batzuk egin beharko dituzte. Hala, kasuaren analisirako galdera batzuk erantzungo dituzte, lanpostua betetzeko berezkoak eta ezinbestekoak diren gaitasunak aztertu ahal izateko.

Ariketa honetan, gehienez ere, 50 puntu lor daitezke. Proba gainditzeko gutxienez 25 puntu lortu behar dira.

Epaimahaia Kalifikatzaileak, hala badagokio, zehaztutako proben ordena aldatu ahalko du, eta egun berean proba bat baino gehiago egitea erabaki.

Interesdunek aurreko ariketen behin-behineko emaitzak jakinarazten diren egunetik bost (5) egun baliodun izango dituzte emaitzei egokitutako jotako erreklamazioak egiteko.

Epe hori amaituta eta, hala badagokio, aurkeztutako alegazioak ebatzita, Epaimahaiak behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

3. Hirugarren ariketa: Euskara-proba, non deialdiaren xede den lanpostuko derrigorrezko hizkuntza-eskakizunari dagokion euskara-maila egiaztatu behar den: C1 maila edo 3. HE.

Ariketa hori beharrezkoa eta kanporatzailea izango da oposizio-faseko lehenengo bi ariketak gainditu dituzten eta eskatutako hizkuntza eskakizuna (3. HE) Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritako baldintzetan egiaztatu ez duten pertsonentzat.

Proba hau honela kalifikatuko da: Gai edo Ez Gai.

Epaimahai Kalifikatzaileak jendaurrean jarriko du hautaketa prozesuan euskara proba egingo den eguna.

Ez dute ariketa hau egin beharko ariketa egin baino lehen IVAPen 3. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Erreferentziarako Europako Esparru Bateratuko



C-1 mailarekin parekatu daitezkeen euskara ezagutzaren ziurtagiri edo titulu ofizialak dituztenek.

Hizkuntza profila Euskararen Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta duten partaideek hori justifikatzen duen agiria aurkeztuko dute, Mankomunitateak egiaztatzea ekin gabe, partaideak hori baimendu ostean.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren (azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa) arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu ahalko da.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBen (Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua) baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

Interesdunek aurreko ariketen behin-behineko emaitzak jakinarazten diren egunetik bost (5) egun baliodun izango dituzte emaitzei egokitutako erreklamazioak egiteko.

Epe hori amaituta eta, hala badagokio, aurkeztutako alegazioak ebatzita, Epaimahaiak behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

— Lehiaketa-fasea: Gehieneko puntuazioa: 45 puntu.

Lehiaketa-fasea oposizio-fasea amaitu ostean hasiko da.

Oposizio-fasean azterketa bat egingo beharko da eta oposizio-fasea gainditu duten hautagaiek alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak baloratuko dira. Balorazio hori egiteko, hautagai bakoitzari esleituko zaizkio dagozkion puntuak deialdiko baremoaren arabera.

Ez dira baloratuko eskaeran alegatutakoak ez diren eta horretarako emandako epe barruan justifikatu ez diren merezimenduak.

Halaber, alegatutako merezimenduak zenbatzeko erreferentziazko epemuga eskaerak aurkezteko epearen amaiera izango da.

Epaimahai Kalifikatzaileak alegatutako eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak egiaztatu ahalko ditu kasuz kasu, dagozkion erregistroak edo kalifikazioa ematen duen organismoa kontsultatuz.

Hona hemen balioetsiko diren merezimenduak:

A. Esperientzia. Gehienez 30 puntu.

— Administrazio Publikoetan gizarte langile gisa emandako eta dagokion administrazioak behar bezala egiaztatutako zerbitzuengatik: 0,25 puntu hilabete oso bakoitzeko, dataz data zenbatuta.

Lan-esperientzia hori Administrazio Publikoarentzat hartzen diren erakunde eta organismoen lotutakoa izango da, indarreko araudian jasotako adiera baten arabera (EPOETBren 2. artikulua) eta organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.

Egiaztapenak lan egindako aldiei, lanaldi-ehunekoei, lanpostuari eta plazari edo kategoriari eta kontratazio-edo izendapen-adien hasiera- eta amaiera-datai buruzko alderdiak zehaztu beharko ditu.

Lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindako epe gisa zenbatuko dira. Hilabetetik beherako epeak ez dira zenbatuko.

Administrazio Publikoan gizarte-langile lanpostu bateko zerbitzuetan egiaztatutako esperientzia zenbatuko da, harreman juridikoa edozein dela ere (karre-rako funtzionarioa, bitarteko funtzionarioa, praktiketako edo lan-erregimen fin-koko funtzionarioa, funtzionario mugagabea edo aldi baterako funtzionarioa),



zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuetan izan ezik.

Halaber, lan-bizitzari lotutako Gizarte Segurantzako egiaztagiria aurkezteko eskatuko da.

Ez dira esperientzia profesionalarekin lotutako merezimenduak baloratuko, baldin eta ez badira berariaz honako hauek aipatzen:

- Betatako lanpostuaren izena eta sailkapen profesionala.
- Kontratazio- edo izendapen-aldien hasiera- eta amaiera-data.
- Lanpostuaren eginkizun nagusiak, kategoriaren adierazpena ez denean behar bezain adierazgarria.

Ez dira zenbatuko era berean alegatutako beste zerbitzu batzuekin aldi berean emandako zerbitzuak eta eskaerak aurkezteko epea amaitu ostean emandako zerbitzuak.

**B. Prestakuntza. Gehienez 15 puntu.**

- Lanpostuaren berariazko zereginekin zerikusia duten gaiei buruzko ikastaroak Administrazio Publikoetan, Herri Administrazioako eskoletan (IVAP, INAP, IEAP edo beste batzuk), nortasun juridiko publikoa duten zentro ofizialetan eta unibertsitateetan (publikoak zein pribatuak) egiteagatik, prestakuntza-ordu bakoitzeko 0,05 puntu emango dira, eta gehienez ere 8 puntu.

Iraupena egiaztatu beharko da, berariaz adierazita ordu kopurua. Ez dira zenbatuko 10 ordutik beherako ikastaroak.

- Sartzeko baldintza gisa eskatutako titulazioa baino altuagoa den titulazioagatik, gehienez ere 4 puntu.
  - Unibertsitate graduondokoa, lanpostuaren esparru funtzionalarekin lotutakoa: 1 puntu.
  - Unibertsitateko Master Ofiziala, lanpostuaren esparru funtzionalarekin lotutakoa: 2 puntu.
  - Doktoregoa, lanpostuaren esparru funtzionalarekin lotutakoa: 3 puntu.

Titulu horiek organismo ofizialak, ikastegiekin edo Unibertsitateekin (publikoak zein pribatuak) emandako egiaztagirien bidez egiaztatuko dira.

- Beste hizkuntza batzuk ezagutzeagatik:

Ingelesaren eta frantsesaren ezagutza baloratuko da, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren honako maila hauetan, eta gehienez ere 3 puntuetan, honako baremo honen arabera:

- C1 maila: 1,5 puntu hizkuntzako
- B2 maila: 1 puntu hizkuntzako
- B1 maila: 0,50 puntu hizkuntzako

Dagokion Hizkuntza Eskola Ofizialak emandako egiaztagiriaren edo egiaztagiri ofizialaren bidez egiaztatuko dira.

Lehiaketa-fasean lortutako puntuazioen batura ezingo da 45 puntu baino altuagoa izan.

Interesdunek aurreko ariketen behin-behineko emaitzak jakinarazten diren egunetik bost (5) egun baliodun izango dituzte emaitzei egokitutako jotako erreklamazioak egiteko.

Epe hori amaituta eta, hala badagokio, aurkeztutako alegazioak ebatzita, Epaimahaiak behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa bi faseetan lortutako puntuazio guztien batura izango da.

**6.2. Denbora eta bitartekoak egokitzea**

Epaimahaiak, hautaprobak egiten diren bitartean aukera- eta tratu-berdintasuna bermatzeko, proben deialdiaren baldintzak egokitu ahalko ditu haurdunaldi edo erditzearen



ondorioz edo ezinbesteko kasuengatik probaren lekura joan ezin duten pertsonen kasuan.

Inguruabar horiek, ahal dela, proba egin aurretik jakinarazi beharko zaizkio Epaimahairi, justifikatzeko dokumentazioa erantsita.

Abenduaren 3ko 2271/2004 Dekretuaren 8. artikuluan eta EEPLren 74. artikuluan xedatutakoa betez, Epaimahaiak proba egiteko denbora eta baliabideak egokituko ditu egokitzapena behar duten eta partaidetza-eskaera hala adierazi duten hautagaiei; horrela, gainerako hautagaiekin aukera-berdintasuna izango dute, betiere horrekin ez bada probaren xedea galarazten, edo ez bada murrizten edo kaltetzen eskatutako gaitasun-maila.

## **7. Prozesuaren hasiera eta garapena**

Prozesua oposizio-fasearekin hasiko da.

Oposizio-fasearen lehen ariketaren tokia, data eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta Mankomunitatearen web-orrian argitaratuko da. Halaber, hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpena argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Oposizioaren gainerako ariketen hasiera zehaztuko duten hurrengo iragarkiak iragarki-taulan eta Mankomunitatearen web-orrian argitaratuko dira. Iragarkia gutxienez hurrengo ariketa hasi eta berrogeita zortzi (48) orduko aurrerapenarekin jakinarazi beharko dira.

Bi (2) hilabete igaro beharko dira gutxienez onartutako eta baztertutako pertsonen ebazpena argitaratzen denetik lehenengo ariketa egiten den arte.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak libreki balioetsitako ezinbesteko kasuetan izan ezik. Deialdia egiten den unean interesduna ariketara aurkezten ez bada, bertan behera geratuko da ariketa berean eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea, eta, ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Hautaketa-probetan prozesuan onartutako pertsona orok parte hartu ahal izango du, bai eta baztertuta egon arren, ebazteke dagoen gora jotzeko errekurtsoa jarri dutela egiaztatzen dutenek ere.

Kalifikazio-epaimahaiak uneoro eskatu ahal izango die hautagaiei behar bezala identifikatu dezatela bere burua. Horretarako, oposizioaren ariketa bakoitzera NANA, pasaporte, gidabaimena edo atzerritarren identifikazio zenbakia eraman beharko dute.

## **8. Iruzurrezko jokabidearen eta lehia desleialaren tratamendua**

Epaimahaiak hautaketa-prozeduratik aldentzeko ahalmena izango du iruzurrezko edozein jardura egiten duen, edozein proba normaltasunez egitea eragozten duen edo lehia desleiala sortzen duen pertsona oro, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera. Epaimahaiko mahaiburuak jarduketa horien berri emango dio mankomunitateburuari; halaber, aldi berean saioaren aktan jasoko ditu.

Halaber, hautaketa-prozesuaren edozein proba egin bitartean, debekatuta egongo da gailuak edo baliabide teknologikoa erabiltzea edo edukitzea, aurretik aipatutako printzipioak saihesteko erabili daitezkeenak.

Betebehar horiek betetzen ez dituen edozein hautagai berehala kanporatuko da probatik eta hautaketa-prozesutik, eta ez da prozeduraren lan-poltsan sartuko.

## **9. Hautaketa-prozesuaren kalifikazio totala**

### **9.1. Prozesuaren kalifikazioak**

Hautagaien behin betiko kalifikazio osoa kalkulatzeko, honako kontzeptu hauek baturako dira: batetik, zati guztiak gainditzen dituzten hautagaiek oposizioaren lehenengo bi ariketetan lortutako puntuazioak, eta, bestetik, lehiaketa-fasean lortutako puntuazioa.



Oposizioko ariketa bakoitzaren eta lehiaketa-faseko merezimendu bakoitzaren kalifikazioak epaimahaiak kideek emandako puntuazioak batuz kalkulatu dira.

Sailkapenaren hurrenkera oposizio-fasean (ariketa bakoitzeko puntuazioen batura) eta, hala badagokio, lehiaketan (merezimendu bakoitzaren puntuazioen batura) lortutako puntuazioen baturaren emaitza izango da.

Berdinketa egotekotan, ordena ezartzeko, lehenik eta behin, oposizio-fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde egingo da; bigarrenik, oposizio-fasearen bigarren ariketan puntuazio handiena lortu duenaren alde egingo da; hirugarrenik, Euskal Administrazio Publikoa gizarte-langile gisa zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; laugarrenik, beste Administrazio Publiko batzuetan gizarte-langile gisa zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde.

Ariketa bakoitzeko puntuazioak iragarki-taulan eta Mankomunitatearen web-orrian argitaratu dira.

#### *9.2. Azterketak berrikustea eta kalifikazioen gaineko erreklamazioak*

Oro har, bost (5) egun balioduneko epea ezarriko da epaimahaiak ebazpena argitaratzen duen egunetik zenbatzen hasita, egindako azterketak berrikusteko edo kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurrez aurre edo egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira; mahaiburuari zuzendu behar zaizkio idatziz, Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean.

Kalifikazio-epaimahaiak erreklamazioak ebatzi ondoren, plaza lortu duten hautagaien puntuazioaren arabera behin betiko zerrenda onetsiko du, eta iragarki-taulan eta Mankomunitatearen web-orrian argitaratu du.

### **10. Gaingitu duten pertsonen zerrenda**

#### *10.1. Emaitzak argitaratzea*

Ariketa bakoitzeko puntuazioak iragarki-taulan eta Mankomunitatearen web-orrian argitaratu dira.

#### *10.2. Gaingitu duten pertsonen zerrenda*

Hautagaiak oposizio- zein lehiaketa-fasean kalifikatu ondoren, epaimahaiak hautagai bakoitzaren sailkapen-proposamena eta -hurrenkera aurkeztuko dizkio mankomunitate-buruari, eta lehenengo postuan dagoen pertsona kontratatzeko proposamena egingo dio.

Halaber, kontratatzeko beste proposamen bat prestatuko du, ariketa guztiak gaingitu dituzten zerrendako pertsonak kontuan hartuta, puntuazio-ordenaren arabera, hautaturiko hautagaiak, izendatu aurretik edo karguaz jabetu aurretik, eskatutako betekizunak eta baldintzak ez egiaztatzeagatik, agiriak ez aurkezteagatik edo faltsukeriagatik, uko egiten diotenean baliatzeko.

Halaber, gauza bera egingo da hautagaiak praktikaldian lanpostua uzten badu edo praktikaldia gaingitzen ez badu.

Epaimahaiak deialdia hutsik gelditu dela erabaki dezake hautagaiak ez badute probetan postua betetzeko maila nahikoa erakusten.

#### *10.3. Epaimahaiaren ebazpenak*

Epaimahai kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira mankomunitateburua-arentzat edo izendapena egiteko eskumena duen organoarentzat, hargatik eragotzi gabe epaimahai horrek ebazpen horiek berrikustea, indarrean dagoen araudian aurreikusita-koaren arabera.

### **11. Lan-poltsa**

Ezarritako probak gaingitzen dituzten hautagaiak kontuan hartuta, lanpostuarekin lotutako lan-poltsa bat sortuko da.



Horretarako, probak gairitu arren funtzionario izendatzen ez direnekin hautagaien zerrenda bat osatuko da, oposizio-faseko guztizko puntuazioa kontuan hartuz. Zerrenda horrek kontingentzia hauek estaltzeko balioko du: bajak, absentziak, aldi baterako behar puntualak, zeregin bereziak eta antzeko beste premia batzuk, bai eta beharra duen edozein administratibot lan egiteko ere, baldin eta zerrendako kideek datuak lagatzeko baimena ematen badute.

Jakinarazpenak jasotzeko datuak aldatu dituzten lan-poltsako pertsonak Enkarterriko Udal Mankomunitateari jakinarazi beharko diote, datuak eguneratu ditzan.

Poltsan dagoen pertsona orok eskaintako izendapena onartu beharko du dagokionean, aipatutako poltsaren ordenaren arabera. Zerbitzua justifikatu gabe uzten badu, izendapena ukatzen badu edo lanpostua ez badu bere gain hartzen, zigor gisa behin betiko lan-poltsatik aterako da, honako kasu hauetan salbu:

- Erditzea, amatasun-baja edo antzeko egoerak.
- Lanera joatea eragozten duen aldi baterako lanerako ezintasuna, betiere behar bezala justifikatzen bada.
- Lanera joatea eragozten duen ordezkartzako kargu publikoa betetzea.
- Bitarteko funtzionario izateko lan-kontratua edo izendapena jasotzea.
- Genero-indarkeriaren ondorioz.
- Araututako ikasketak egitea deialdia egiten den unean.

Aurreko atalean zerrendatutako egoerak eragiten dituen kausa amaitzen denean Mankomunitateari jakinarazi beharko zaio; izan ere, jakinarazpena jaso arte hautagaia aldi baterako baja-egoeran egongo da lan-poltsan. Lan-poltsan aldi baterako baja emateko arrazoia amaitu dela modu fede emailan jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Mankomunitateak alta emango dio lan-poltsan.

Poltsako hautagaia postuaz jabetzen denean ezingo du uko egin, Mankomunitateak libreki kontuan hartu dituen eta behar bezala justifikatuta dauden kasuetan salbu. Uko egitekotan, lan-poltsatik behin betiko kanporatuko litzateke.

Poltsa hori indarrean eta martxan egongo da beste lan-poltsa bat beste hautaketa-prozedura baten bidez eratu edo indargabetu arte, baldin eta eraginkorra ez dela egiaztatzen bada.

Poltsa osatzen duten hautagaiak puntuazioaren araberrako ordeenean deituko dira, beharra sortu ahala, eta honela egingo da:

- a) Prozedura orokorra: Telefonoz eta mezu elektronikok bidez jakinaraziko zaie hautagaiei, poltsako ordena zehatz mehatz jarraituz. Hautagaiak gehienez ere hogeita lau (24) orduko epean erantzun beharko du, jakinarazten zaion unetik zenbatzen hasita. Gehienez ere hiru (3) saiakera egingo dira, ordu desberdinetan, eta gutxienez bi (2) egun desberdinetan.
- b) Premiazko prozedura: Telefonoz eta mezu elektronikok bidez jakinaraziko zaie hautagaiei, poltsako ordena zehatz mehatz jarraituz. Hautagaiak gehienez ere hiru (3) orduko epean erantzun beharko du, jakinarazten zaion unetik zenbatzen hasita. Gehienez ere hiru (3) saiakera egingo dira, ordu desberdinetan. 8:00etatik 15:00etara harremanetan jartzeko hiru (3) saiakera egin ondoren hautagaiarekin kontaktatu ezin denean, zerrendako hurrengo hautagaiari deituko zaio, eta erantzun ez duen hautagaia hasieran itxaron-zerrendan esleituta zeukan postu bererra itzuliko da. Espedientearen egindako kudeaketa jasoko da.

Eskaintza bakoitzerako egunean gehienez ere hiru (3) dei egingo dira. Deiak ez hartzekotan, hurrengo hautagaiarekin harremanetan jarriko gara.

Lanpostuaren jabetza hartzeko hautagaiari deitzen zaion unean, hurrengo oinarrian jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko du hautagaiak.

## **12. Dokumentuak aurkeztea**

Funtzionario izateko proposatutako hautagaiak Mankomunitatearen erregistroan aurkeztu beharko ditu izendapen-proposamena argitaratu eta hogeita (20) egun naturaleko



epean, deialdiaren oinarrietan hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko dokumentu hauek:

- NANaren edo nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen duen agiriaren fotokopia konpultsatua, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren kasuan.
- Jaiotza-ziurtagiria, dagokion Erregistro Zibilak igorrita. Egiaztagiri horren ordez Erregistro Zibileko egiaztagiri arrunt bat edo familia-liburua erakutsi ahal izango da.
- Kargu publikoak betetzeko gaitasun gabetuta ez dagoela eta diziiplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik bananduta ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.
- Dago Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean aurreikusitako ezgaitasun- edo bateraezintasunkausaren batean ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.
- Mankomunitatearen zerbitzu-medikuek igorritako egiaztagiria; bertan, dagokion funtzioak betetzeko gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela jaso beharko da. Gainera, desgaitasuna duten hautagaiek egoera hori egiaztatzen duen organo eskudunaren egiaztagiri ofiziala aurkeztu beharko dute; halaber, egiaztagiri horrek postuaren funtzioak modu egokian garatzeko gaitasuna jaso beharko du.
- Kopia konpultsatutako agirien bidezko justifikazioa, oinarri hauetan eta eranskinetan jasotako berariazko gainerako eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen dituen.

Hautagaiak aipatutako agiriak aurkeztea ezinezkoa duela behar bezala justifikatzen badu, hautagaiak zuzenbidean onargarri den edozein bide erabili ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Funtzionario publikoek edo lan-kontratuko langileek ez dute agiri bidez justifikatu beharko aurreko izendapena lortzeko egiaztatu zituzten baldintzak eta betekizunak. Zerbitzu-orrian jasota dauden egoera eta gorabehera guztiak egiaztatzen dituen agiria aurkeztu beharko dute, zein ministerio, autonomia-administrazio, toki-korporazioa edo erakunde publikoren menpe dauden kontuan hartuta.

Adierazitako epean eta ezinbesteko kasuetan salbu, proposatutako pertsonak deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa aurkezten ez badu, edo eskatutako betekizunak betetzen ez baditu, ezin izango da kontratatu eta jarduketa guztiak bertan behera geldituko dira, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaeran faltsukeria egin izanagatik merezi dezaketan erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

### **13. Izendapena**

Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea bukatu ondoren mahaiburuak hartu beharreko erabakiaren bidez epaimahaiak proposatutako hautagaia praktiketako funtzionario izendatuko da, betiere oinarri hauetan zehaztutakoaren arabera.

Izendapena interesdunari jakinarazi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, baita iragarki-taulan eta web-orrian ere.

Izendapenaren ebazpenean probaldia edo praktikaldia aurreikusten den bitartean behin betiko atxiki beharreko lanpostua jasoko da, hurrengo oinarrian ezarritakoaren arabera.

Funtzionario izendatutako hautagaiak hilabeteko (1) epea izango du izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik lege ezarritako zin edo promesa egin eta lanpostuaz jabetzeko, Mankomunitateko idazkariaren aurrean.

Zin edo promesarik ez egiteak, edo lanpostuaren jabetza ez hartzea eskubide guztiak galtzea eragingo du.

**14. Praktikaldia eta prestakuntza-aldia**

Epaimahaiak izendatutako pertsonak 12. oinarrian ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Mankomunitateko organo eskudunak Mankomunitateko praktiketako funtzionario izendatuko du.

Praktikaldiaren eta prestakuntza-aldiaren iraupena sei (6) hilabetekoa izango da eta baztertua izango da.

Praktikaldia eta prestakuntza iraun bitartean, praktiketako funtzionario izendatu duten pertsonak bere zereginak normaltasunez gauzatu dituzte, eta ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, EEPLren 127. legean xedatutakoa betez. Probaldia edo praktikaldia egoitza korporatiboan bertan egingo da, mankomunitateburuak izendatutako karrerako funtzionario edo lan kontratadun langile finko baten zuzendaritzapean.

Praktikaldian zehar etengabe ebaluatuko dira deialdiaren xede den plazari dagozkion funtzioak eta zereginak betetzeko beharrezko gaitasunak.

Hautatutako hautagaia behartuta egongo da, hala badagokio, Korporazioak egokitzat jotzen dituen eta bete beharreko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten gaietara lotutako prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak egitera.

Hautatutako pertsonak aldez aurretik hamabi (12) hilabete baino gehiagoz egon bada lanean Enkarterriko Udal Mankomunitatean, eta jardunaren aldeko txostena jaso badu, probaldia eta praktikaldia baliozkotu daiteke.

Hautagaia gai edo ez gai kalifikatuko da; hortaz, gai izan beharko da hautaketa-prozesuaren fase hori gainditzeko.

Aldi hori amaitutakoan, tutoreak (edo ebaluazio-batzordeak) txostena egingo du, eta berriaz adierazi beharko du hautagaiek probaldia edo praktikaldia gainditu duten. Gainditzeko duena karrerako funtzionario izendatuko dute.

Bestela, ez-gai deklaratu da Presidentziaren ebazpen arrazoituaren bidez, entzunaldiaren izapidea hamar (10) egun balioduneko epean egin ondoren, tutorearen (edo ebaluazio-batzordearen) txostena ikusi ondoren, eta, ondorioz, karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko ditu.

Hautagaiak ez badu praktikaldia gainditzen eta prozesutik kanpo egoteko erabakia hartu aurretik alegazioak aurkeztu baditu, horiek ebatzi ondoren edo hautagaiari baja eman ondoren, mahaiburuak zerrendako hurrengo hautagaia izendatzeko proposamena egingo du, oposizio-fasean lortutako guztizko puntuazioari jarraituz.

**15. Lanpostuaren jabetza hartzea**

Praktikaldia gainditu ondoren karrerako funtzionario izendatuko dute.

Izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta lege ezarritako beste edozein euskaritan argitaratuko da.

Izendatutako funtzionarioa hamar (10) egun naturaleko epean lanpostuaz jabetu beharko da, izendapena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala ere, mahaiburuak diskrezionaltasunez eta behar bezala arrazoituta, lanpostuaz jabetzeko epea luzatu ahalko du, aurreko epearen erdia baino gehiago ez bada ere, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Kasu horietan ere, diskrezionaltasunez luzatu ahal izango du epe hori.

**16. Datu pertsonalak**

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) jasotako eskubideak bermatuko dira, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ere.

Hautagaiak emandako datu pertsonalak hautapen-prozesuan parte hartzeko eskararak kudeatzeko tratatuko dira, bai eta horren ondorioz administrazio honetan edo beste administrazio batean balizko bitarteko izendapenatarako sortzen den lan-poltsetarako ere. Hautapen-prozesuan parte hartzeak hautagaiak hautaketa-prozesua iraun bitartean entregatu beharreko dokumentazioa tratatzea dakar.



Hautagaiek hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera aurkezteak aldizkari ofizialetan, iragarki-tauletan, Mankomunitatearen web-orrian eta hautaketa-prozesua arautzen duten oinarriak aplikatzean erabiltzen den beste edozein bitartekotan egiten diren argitalpenetan identifikatzea dakar berekin; halaber, IVA Pek (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) edo bestelako erakunde eskudunek euskara-maila egiaztatzeko eta epaimahaiak hautaketa-prozesuari lotutako probak prestatzeko eta egikaritzeko beharrezko datuak egiaztatu ahal izango ditu ere.

Oinarri hauen xede den hautaketa-prozesua publikotasun printzipioak arautzen du; beraz, eskaria ez da onartuko, baldin eta hautagaiek bere datuak ematea onartzen ez badu aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako.

Halaber, parte hartzeko eskaeran eskatuko da hautagaien berariazko baimena hautapen-prozesuaren ondorioz sortutako lan-poltsa kudeatzeko eta beren datu pertsonalak beste administrazio publiko batzuei lagatzea onartzeko, «Lanpostuarekin lotutako lan-poltsa sortzea» eta «Lan-poltsa» oinarrietan aurreikusitako ondorioetarako.

Datuak lagatzearen xede bakarra izango da beste administrazio publiko horiengandik enplegu-eskaintzak jaso ahal izatea, legean aurreikusitako baldintzetan. Hortaz, hautagaiaren onarpena berariaz jaso ezean, ulertuko da lagapen horren aurka dagoela.

Hautagaiek emandako datu pertsonalak «Enkarterriko Udal Mankomunitateko gizarte-langilea hautatzeko prozesua» izeneko tratamenduaren jarduerara gehituko dira.

Tratamenduaren arduraduna Enkarterriko Udal Mankomunitatea da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta tratamendua mugatzeko edo ukatzeko eskubideak gauzatzeko Mankomunitateari (Inmaculada auzoa 15, 48850, Zalla, Bizkaia) idatzi bat bidali beharko zaio, egoitza elektronikoaren bidez, edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari edo Datuak Babesteko ordezkariari zuzenduta (dpo@segurdades.com).

## **17. Aurka egiteko bideak**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera, aukerako berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal da oinarri hauek onartu dituen organoaren aurka hila beteko (1) epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, bi (2) hilabeteko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasiko da.

## **18. Bukaerako arauak**

Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden kasuetarako, hautaketa-prozeduran honako hauetan ezarritakoa kontuan hartuko da: 11/2022 Legea, abenduaren 1koa, Euskal Enplegu Publikoarena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa erreformatzeko neurriei buruzkoa; martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura dauden langileen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako toki-araubidearen arloko indarreko lege-xedapenen testu bategina; 896/1991 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Toki Administrazio funtzionarioen hautaketa prozeduraren oinarritzko arauak eta gutxienezko programak ezartzen dituen; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 26koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena; 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeke; eta 2271/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko eta lanpostuak betetzea arautzen duena.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta horietatik eta epaimahaiaren jarduketetatik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean aurreikusitako kasuetan eta moduan.



I. ERANSKINA / ANEXO I  
INSTANTZIA EREDUA / MODELO DE INSTANCIA

GIZARTE LANGILEA / TRABAJADOR/A SOCIAL

Garrantzitsua: Datuak jaso aurretik, kontsultatu jarraibide orokorrak / Importante: Antes de consignar los datos consulte las instrucciones generales.

1. Eskaeraren datuak / Datos de la solicitud  
Interesdunaren datuak / Datos de la persona interesada

|                                        |  |                                         |                       |
|----------------------------------------|--|-----------------------------------------|-----------------------|
| NAN/AIZ/PASAPORTEA / DNI/NIE/PASAPORTE |  | Izen-abizenak / Nombre y apellidos      |                       |
| Helbidea / Dirección                   |  |                                         |                       |
| Udalerrria / Municipio                 |  | P.K./ C.P                               | Probintzia /Provincia |
| Jaioteguna / Fecha nacimiento          |  | Sexua / Sexo                            |                       |
| Telefonoa / Teléfono                   |  | Posta elektronikoa / Correo electrónico |                       |

2. Jakinarazpenen bidea aukeratzea / Seleccionar medio de notificaciones

|                                                                                                                                                                                                                 |                                                 |                                                                              |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------|
| Aukera ezazu zein bitarteko erabili behar den eskabide honetatik eratortzen diren jakinarazpenak helarazteko/<br>Seleccione el medio para la práctica de las notificaciones derivadas de la presente solicitud. | <input type="checkbox"/> Paperean /<br>En papel | <input type="checkbox"/> Baliabide<br>Elektronikoak<br>/ Medios electrónicos |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------|

Paperean aukeratuz gero, zehaztu jakinarazpenaren posta-helbidea  
En caso de seleccionar «En papel» especifique la dirección postal de notificación:

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Eskaera honen ondoriozko jakinarazpenak eta/edo komunikazioak honako posta-helbide honetan egingo dira, baldin eta ematen den unean ez badago indarrean erakundearen Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa inskribatutako ahalorde-ematerik edota jakinarazpen elektroni- korako harpidetza bat, udal-egoitza elektronikoaren «Nire harpidetzak» atalean jasoko dena. | Las notificaciones y/o comunicaciones derivadas de la presente solicitud se practicarán en la siguiente dirección postal siempre y cuando no exista en el momento de su emisión, vigente un otorgamiento de poder inscrito en el Registro Electrónico de Apoderamientos de la entidad y/o una suscripción a la notificación electrónica que constará en el apartado «Mis suscripciones» de la sede electrónica municipal. |
| Helbidea / Dirección                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| Udalerrria / Municipio                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | P.K./ C.P                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| Probintzia / Provincia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |



3. Deialdiaren datuak / Datos de la convocatoria

|                                                                                                                             |                          |          |                          |         |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|----------|--------------------------|---------|
| Azterketa euskeraz egin nahi duzu?<br>¿Desea hacer las pruebas en euskera?                                                  | <input type="checkbox"/> | Bai / Si | <input type="checkbox"/> | Ez / No |
| Azterketa egin ahal izateko, egokitzapenen bat behar duzu?<br>¿Precisa de algún tipo de adaptación para realizar el examen? | <input type="checkbox"/> | Bai / Si | <input type="checkbox"/> | Ez / No |
| Hala bada, zehaztu zein/<br>En el caso de que, si lo precise, especifique cuál:                                             |                          |          |                          |         |

4. Hizkuntz eskakizun / Perfil lingüístico

|                                                                                                                   |                          |          |                          |         |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|----------|--------------------------|---------|
| Euskarazko 3. HE.agiria edo baliokidea aurkezten dut / Presento acreditación de perfil 3 de euskera o equivalente | <input type="checkbox"/> | Bai / Si | <input type="checkbox"/> | Ez / No |
| Euskarazko 3. HE probara aurkeztuto naiz / Me presento a la prueba de euskera Perfil 3                            | <input type="checkbox"/> | Bai / Si | <input type="checkbox"/> | Ez / No |

3. Lan Poltsan sartzeko baimena/ Consentimiento para la inclusión en Bolsa de Trabajo

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                          |          |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|----------|
| Sinatzaileak BAI / EZ dio baimenik ematen Enkarterriko Udalerrien Mankomunitateari bere datuak Lan Poltsan sartzeko, Mankomunitatearen aldi baterako ordezkapenak, bajak, absentziak eta abar betetzeko eta beste administrazio publiko batzuei lagatzeko.<br>La persona firmante SI / NO autoriza a la Mancomunidad de Municipios de Las Encartaciones la inclusión de sus datos en la Bolsa de Trabajo, para la cobertura de sustituciones temporales, bajas, ausencias, etc. de la Mancomunidad, así como su cesión a otras administraciones públicas. | <input type="checkbox"/> | Bai / Si |
|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | <input type="checkbox"/> | Ez / No  |

6. Adierazpenak / Declaraciones

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Sinatzaileak adierazten du:<br>— Egiazkoak dira eskabidean jasotako datu guztiak.<br>— Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditu.<br>— Egiazkoak dira alegatutako merezimendu guztiak.<br>— Ez da inongo administrazio publikoren zerbitzutik diziplina-espediente bidez bereizi, eta ez dago Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean eta Estatuko Administrazioaren zerbitzuko langileei aplikatu beharreko bateraezintasunei buruzko apirilaren 30eko 598/85 Errege Dekretuan aurreikusitako ezgaitasun- edo bateraezintasun- kausaren batean. | La persona firmante declara que:<br>— Son ciertos todos los datos consignados en la solicitud.<br>— A la fecha de finalización del plazo para la presentación de instancias, cumple todas y cada una de las condiciones exigidas en la convocatoria<br>— Son ciertos todos los méritos alegados.<br>— No ha sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de ninguna de las Administraciones Públicas, ni se halla incurso o incurso en alguna de las causas de incapacidad o incompatibilidad previstas en la Ley 53/84, de 26 de diciembre, de incompatibilidades del personal al servicio de la Administración Pública, en el Real Decreto 598/85, de 30 de abril, sobre incompatibilidades aplicables al personal al servicio de la Administración del Estado. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|



7. Aurkezten dudan dokumentazioa / Documentación que presento

| Eskatutako datuak eta dokumentuak / Datos y Documentos exigidos |                                                                                                  |                                                                                                                |
|-----------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/>                                        | NAN, AIZ, pasaportea                                                                             | DNI, NIE, Pasaporte                                                                                            |
| <input type="checkbox"/>                                        | Deialdian eskatutako titulazioa<br>( adierazi urtea eta erakunde egiaztatzailea)                 | Titulación exigida en la convocatoria<br>(indicar año y entidad acreditante)                                   |
| <input type="checkbox"/>                                        | 3. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea                                                              | Certificado del perfil lingüístico 3                                                                           |
| <input type="checkbox"/>                                        | IT-Txartela ziurtagiria, oinarrien arabera                                                       | Certificado IT-Txartela segun Bases                                                                            |
| <input type="checkbox"/>                                        | Gidatzeko baimena                                                                                | Carnet de conducir                                                                                             |
| <input type="checkbox"/>                                        | Administrazio Publikoan egindako zerbitzuen<br>ziurtagiria:<br>-<br>-<br>-<br>-<br>-<br>Oharrak: | Certificado de servicios prestados en la<br>Administración Pública:<br>-<br>-<br>-<br>-<br>-<br>Observaciones: |
| <input type="checkbox"/>                                        | Prestakuntza-ikastaroak jaso izanaren<br>ziurtagiria.                                            | Certificado acreditativo de recepción de<br>cursos de formación.                                               |
| <input type="checkbox"/>                                        | Beste baldintza batzuk egiaztatzen dituen<br>ziurtagiria:<br>-<br>-<br>-<br>-                    | Certificado acreditativo de otros requisitos:<br>-<br>-<br>-<br>-                                              |

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren alde edo [organo kudeatzaileari] emandako botere publikoak erabiliz egindako eginkizun bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta legeria aplikagarrian aurreikusi- tako baldintzetan.

Behean izenpetzen duenak eskabide honetan aipaturiko hautaketa saioetan eskuhartzea eskatzen du eta aitortzen du benetakoak direla berton adierazitako datuak eta badituela funtzio publikoan sartzeko eskatzen diren baldintzak, bereziki gorago ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez. Honen bidez, hautaketa prozesuan eman behar dituzun datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen duzu. Bereziki, baimena ematen du bere datu pertsonalak eta hizkuntza-eskakizunei edo baliokideei buruzko datuak IVAPi lagatzeko, alegatutako egiaztapenari buruzko datuak egiaztapen-erregistroan egiaztatzeko.

El tratamiento de los datos de carácter personal queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos a [órgano gestor], en los términos previstos en el artículo 6.1 e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 y legislación aplicable.

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la Función Pública y las especialmente señaladas en la convocatoria anteriormente citada, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud. Por medio de la presente usted otorga consentimiento expreso para el tratamiento de los datos de carácter personal que deba aportar en el marco del proceso de selección al que concurre. Particularmente consiente la cesión al IVAP de sus datos personales y de los relativos de los perfiles lingüísticos o equivalentes para comprobar en el registro de acreditaciones los datos relativos a la acreditación alegada.

(Tokia/Lugar) (Urtea / Año) (Hilabetea / Mes) (Eguna / Día)  
Sinadura / Firma



Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarritzko informazioa: 2016/679 (EB) Erregelamendua. Arduraduna: Enkarterriko Udal Mankomunitatea, Inmaculada Auzoa, 15 48850, Zalla, Bizkaia, 946671851, P4800016J. Helburua: Hautaketa-prozesuaren kudeaketa. Hartzaileak: Aldizkari Ofiziala, udal-taulak eta -webguneak, gaian eskumena duten beste administrazio publiko batzuk, Epaitegiak eta Auzitegiak. Eskubideak: Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko edo ukatzeko. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar du Enkarterriko Udal Mankomunitatearen helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiri bat erantsiz edo Korporazioaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen izapide elektronikoa hasiz. Informazio gehiago nahi izanez gero: [www.enkarterri.eus](http://www.enkarterri.eus)

Información básica de tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679. Responsable: Mancomunidad de Municipios de las Encartaciones, Bº La Inmaculada, 15, 48850, Zalla, Bizkaia, Teléfono: 946671851, P4800016J. Finalidad: Gestión del proceso selectivo. Destinatarios: Boletín Oficial, tablones y webs municipales, Otras Administraciones Públicas con competencia en la materia, Juzgados y Tribunales. Derechos: La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección de la Mancomunidad de Municipios de las Encartaciones incluyendo un documento acreditativo de su identidad o iniciando el trámite electrónico disponible en la sede electrónica de la Corporación. Para más información: [www.enkarterri.eus](http://www.enkarterri.eus)

JARRAIBIDE OROKORRAK

- Ale guztietan datuak argi irakur daitezkeela ziurtatu.
- Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin.
- Inprimakia izenpetu egin behar duzu.

INTERESATUARENTZAKO JARRAIBIDEAK

- Oinarrietan eskatutako betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira.

INSTRUCCIONES GENERALES

- Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares.
- Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras.
- No olvide firmar el impreso.

INSTRUCCIONES PARA LA PERSONA INTERESADA

- Se deberán aportar aquellos documentos que acrediten los requisitos exigidos por las bases.



Deialdi honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da deialdia onartu duen organoan hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahaliko da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi (2) hilabeteko epean. Hala ere, aipatutako bi errekurtsoak ezin izango dira aldi berean jarri.

**II. ERANSKINA****GAI-ZERREDA OROKORRA****I. ATALA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: Printzipio Orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak. Botere-banaketa. Estatuaren lurralde-antolaketa.

2. gaia: EAEko Autonomia Estatutua: EAEko eskumenak: eskusiboa, lege-garapene-koak eta egikaritze-koak.

3. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen: Udal Antolakuntza. Oinarrizko organoak eta organo osagarriak. Gaitasunak.

4. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen: Toki erakundeen erregelamendu-ahala. Toki erakundeen ordenantzak eta erregelamenduak. Elaborazio- eta onespren-prozedura.

5. gaia: 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa: Tokiko erakundeen aurrekontuak: definizioa, indarraldia, aurrekontu-printzipioak, aurrekontu orokorren edukiak, aurrekontuen elaborazioa eta onspena.

6. gaia: 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Tokiko Ogasunei buruzkoa: Tokiko Ogasunen printzipio arautzaileak. Udal-zergak, tasak, ekarpen bereziak, dirulaguntzak, prezio publikoak.

7. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa: Prozeduraren interesdunak. Prozeduraren interesdunen eskubideak. Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua. Interesduna eta bere ordezkapena.

8. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa: Prozeduraren interesdunen eskubideak. Prozeduraren faseak. Zuzenketa eta hobekuntza. Erantzukizunpeko adierazpena eta jakinarazpena.

9. gaia: Administrazio egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak: administrazio-egintzaren elementuak.

10. gaia: Administrazio prozedura orokorraren faseak. Administrazioaren isiltasuna.

11. gaia: Administrazio-egintzen eraginkortasuna: Administrazio-egintzen baliogabetasuna: erabateko deuseztasun eta deuseztagarritasun kasuak. Ofiziozko berrikuspena.

12. gaia: Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

13. gaia: Urriaren 30ko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duena. Langile motak eta enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Ordainsariak. Diziplina-araubidea.

14. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

15. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko: Araubide eta definizioak. Datuak babesteari buruzko printzipioak. Pertsonen eskubideak.

16. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.



## II. ATALA

17. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte zerbitzuei buruzkoa: I. titulua: xedapen orokorrak; II. titulua: prestazioak eta zerbitzuak, antolaketa funtzionala eta lurraldeko antolaketa eta plangintza gizarte-zerbitzuen euskal sisteman.

18. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte zerbitzuei buruzkoa: III. titulua: gaitasun-, antolamendu-, kontsulta- eta partaidetza-araubidea gizarte-zerbitzuen euskal sisteman; IV. titulua: gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren finantzaketa.

19. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte zerbitzuei buruzkoa: V. titulua: Ekimen pribatuaren esku-hartzea; VI. titulua: gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren gara-pena eta hobekuntza.

20. gaia: 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta irado-kizun eta kexen araubidea onesten duena. (1-32. artikulua).

21. gaia: 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena.

22. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. 1-34. artikulua.

23. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. I. eranskina, A) atala.

24. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. I. eranskina, B), C) eta D) atalak.

25. gaia: Tresna tekniko erkideak: 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa (1-4. artikulua).

26. gaia: 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena (1-6. orr.).

27. gaia: 173/2023 Dekretua, azaroaren 21ekoa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua onartzen duena.

28. gaia: Haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko estatuko esparru juridikoa: 26/2015 Legea uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena.

29. gaia: Haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko EAEko esparru juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa (1-25. artikulua).

30. gaia: Haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko EAEko esparru juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa (26-68. artikulua).

31. gaia: arrisku eta babesgabetasun egoerak: definizioa eta larritasun-mailak, larritasunaren balorazioa eta prozedura, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duen otsailaren 9ko 152/2017 Dekretuaren arabera.

32. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, pertsonen autonomia sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. 1. artikulutik 12. artikulura, biak barne.

33. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, pertsonen autonomia sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. 13. artikulutik 25. artikulura, biak barne.

34. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 153/2016 Foru Dekretua, urriaren 11koa, mendekotasunaren ebaluaziorako eta orientaziorako prozedura arautzen duena.



35. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 21ekoa, gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duena.

36. gaia: 27/2003 Legea, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua arautu duena eta 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (1-44. artikulua eta 61-69. artikulua).

37. gaia: 4/2000 Lege Organikoa, otsailaren 11koa, Espainian atzerritarrek dituzten eskubideei, askatasunei eta gizarte-integrazioari buruzkoa. I. titulua. Kanpotarren eskubideak eta askatasunak eta II. titulua: kanpotarren araubide juridikoa.

38. gaia: 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, 4/2000 Lege Organikoaren erregelamendua onartzen duena. IV., V. eta VI. tituluak.

39. gaia: Gizarte langintza: Kontzeptua, oinarriak, helburuak, zereginak eta printzipioak. Kontzeptu orokorrak eta aplikazioa gizarte zerbitzuetan.

40. gaia: Gizarte diagnostikoa: prozedura eta ebaluazioa.

41. gaia: Gizarte Langintzako teknikak: elkarriketa eta etxeko bisita.

42. gaia: Gizarte Langintzako tresnak: gizarte historia, gizarte fitxa, gizarte txostena eta beste batzuk.

43. gaia: Esku-hartze Komunitarioa. Beharren detekzioa, helburuak, metodologia, teknikak eta tresnak eta esku-hartze mailak.

44. gaia: Etika gizarte esku-hartzean. Printzipioak eta baloreak. Intimitatea, konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala. Gatazka etikoak eta etika batzordeak gizarte esku-hartzean. Gizarte Langintzako Kode Deontologikoa (2012).

45. gaia: Enkarterriko Mankomunitateko Gizarte Ongizateko Sailaren antolakuntza egitura.

46. gaia: Esku-hartzea haurren babesgabetasun-egoeretan: harrera, ikerketa, ebaluazioa, diseinua eta esku-hartze planaren egikaritzea. Tratu txarrak haurtzaroan.

47. gaia: Esku-hartzea gizarte-premia eta/edo -larrialdi egoeran.

48. gaia: Esku-hartze ereduak Gizarte Langintzan.

49. gaia: Kasuen berrikuspena gizarte zerbitzuetan.

50. gaia: gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeko eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzua.

51. gaia: Gizarte-bazterketa: kontzeptua, ezaugarriak eta horretan eragiten duten faktoreak. Ekarpen profesionala gizarte langintzatik.

52. gaia: 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena.

53. gaia: 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa eta horren aldaketa 16/2017 Dekretuaren bidez (2017/01/24ko 16 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

54. gaia: 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa: I. titulua: Xedapen orokorrak. Boluntariotza gizarte ekintzako tresna gisa. Ekarpena eta jarduketa-mugak. Mankomunitatearen eta boluntariotzaren arteko harremanak.

55. gaia: 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa Xedapen orokorrak.

56. gaia: Emakumeen aurkako indarkeria. Definizioa, sorrera, ezaugarriak eta modalitateak. Indarkeriaren zikloa.

57. gaia: Emakumeen aurkako indarkeria. Etxeko tratu txarrak. Kontzeptua. Motak eta faktore eragileak. Ezaugarriak. Foru-baliabideak.

58. gaia: Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzioa eta esku-hartzea: tresnak, programak eta zerbitzuak.

59. gaia: Tratu txarrak etxeko esparruan: esku-hartze instituzionala. Institutio barruko koordinazioa eta jarduketa-protokoloak. Esku-hartze profesionala Gizarte Langintzatik.



60. gaia: Guraso eta seme-alaben arteko indarkeria. Oinarria. Kontzeptualizazioa: guraso eta seme-alaben arteko indarkeria ekiditeko foru-programa.

61. gaia: Enkarterriko Udal Mankomunitateko Emakumeen eta Gizonen Arteko III. Berdintasun Plana.

62. gaia: Enkarterriko Udal Mankomunitateko elikagaien bankuaren funtzionamendua arautzen duen erregelamendua.

63. gaia: Enkarterriko Udal Mankomunitateko tuper solidarioaren funtzionamendua arautzen duen erregelamendua.

64. gaia: Enkarterriko Udal Mankomunitatean Etxez Etxeko Laguntza arautzen duen Araudia.

Gaiak prestatzeko, indarreko legeriatzat joko da deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen unean indarrean dagoena.